AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA / BASQUE INSTITUTE

783

EBAZPENA, 2024ko otsailaren 2koa, Etxepare Euskal Institutuko zuzendariarena, zeinaren bidez onartzen baita komunikazio digitaleko teknikari lanpostu bat lehiaketa-oposizio eta txanda ireki bidez betetzeko hautaprobetan onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda, eta izendatzen baita epaimahai kalifikatzailea.

Etxepare Euskal Institutuko zuzendariak 2023ko maiatzaren 17an emandako ebazpenaren bidez, ondorengo lan-kontratudun finkoak hartzeko hautaketa-prozesurako deia egiten zen: komunikazio digitalerako teknikaria, sistema teknikaria, administrazioko eta zerbitzuetako teknikari eta administrari laguntzailea.

Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren 98. zenbakian argitaratu zen 2023ko maiatzaren 25ean.

Era berean, 2023ko abenduaren 29an, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren 247. zenbakian argitaratu zen 2023ko azaroaren 27an Etxepare Euskal Institutuko zuzendariak emandako ebazpena, zeinaren bidez argitaratzen ziren komunikazio digitaleko teknikari kategoriako lan-kontratudun finko bat txanda irekiaren bidez hartzeko hautaketa-prozesuaren oinarri espezifikoak eta aipatutako prozesuan izena emateko epea zabaltzen zen.

Oinarri orokorren 4.2 puntuan adierazten denez, hautagaiek hogei (20) egun naturaleko epea izan zuten izena emateko, oinarri espezifikoak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epe hori igarota, prozesuaren oinarri espezifikoen 8.7 atalean adierazten denez, hautagaien behin-behineko zerrendarekin batera argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian epaimahaiko kideen eta horien ordezkoen izenen zerrenda.

Ondorioz, hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, egoki da izangaien behin-behineko zerrenda argitaratzea eta epaimahaikide guztiak izendatzea, deialdiaren oinarri arautzaileetan aurreikusitakoarekin bat etorriz.

Hori dela eta, Etxepare Euskal Institutuaren antolakuntza- eta jarduera-araudia onartzen duen 2008ko maiatzaren 13ko 88/2008 Dekretuaren 18. artikuluaren arabera, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Komunikazio digitaleko teknikari kategoriako plaza bat txanda irekian eta oposizio-lehiaketa bidez betetzeko onartutako izangaien behin-behineko zerrenda onartzea. Zerrenda hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Eusko Jaurlaritzaren iragarki-taula elektronikoan eta Etxepare Euskal Institutuaren webgunean jarriko da ikusgai. Zerrenda hori ebazpen honen I. eranskinean jasoko da.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hamar egun balioduneko epea irekitzea, interesdunek behin-behineko zerrendatik kanpo geratzea edo bertan ez agertzea eragin duten arrazoiak zuzendu ahal izan ditzaten. Epe hori igarota, eskubide hori galduko dute, eta Etxepare Euskal Institutuko zuzendariak ebazpena

emango du onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda onartzeko. Ebazpen horretan, gainera, lehenengo proba noiz, zer ordutan eta non hasiko den adieraziko da. Ebazpen hori Eusko Jaurlaritzaren iragarki-taula elektronikoan eta erakundearen webgunean argitaratuko da.

Hirugarrena.– Argitara ematea Etxepare Euskal Institutuko zuzendariak izendatutako epaimahai kalifikatzailearen osaera, ebazpen honen II. eranskinean jasoko dena.

Laugarrena.– Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari. Ebazpen honen aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete interesdunek Etxepare Euskal Institutuko zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Donostia, 2024ko otsailaren 2a.

Etxepare Euskal Institutuko zuzendaria,
IRENE LARRAZA AIZPURUA.

I. ERANSKINA

Behin-behinean onartutakoen zerrenda:

NAN	Lehen abizena	Bigarren abizena	Izena
***3675**	Perez	Eguren	Miren
***6801**	Goikoetxea	Azpeitia	Amaia
***3521**	Amonarriz	Zubeldia	Jone
***8386**	Urteaga	Belza	Maider
***1237**	Castro	Elosegui	Maddi
***4282**	Uribarren	Bengoa	Ainixe
***0053**	Lasa	Iza	Mikel Roman
***6999**	Berradre	Urretabizkaia	Patxi
***7900**	Olazar	Elduaien	Eider
***0588**	Azurza	Eskisabel	Sara
***7869**	Labandibar	Arbelaitz	Goiatz
***3460**	Otamendi	Laspiur	Maria
***6140**	Goikoetxea	Arrufat	Iñaki
***0733**	Peña	Urroz	Claudia
***5246**	Barrenetxea	Jurado	Peio
***7298**	Solis	Etxegoien	Roman
***3978**	Ibarguchi	Landazuri	Amalia
***2314**	Arrue	Unanue	Ines elvira

Behin-behinean ez onartutakoen zerrenda:

NAN	Lehen abizena	Bigarren abizena	Izena	Baztertzearen arrazoia
***1332**	Uriarte	Belzunegui	Maite	Sinadura digitala falta zaio.
***1257**	Imaz	Marin	Ainhoa	Ez du eskatzen den ingeles-maila frogatu.
***3507**	San Sebastian	Lalanne	Leire	Ez du eskatzen den ingeles-maila frogatu.
***4139**	Monroy	Diaz de isla	June	Ez du eskatzen den ingeles-maila frogatu.
***2487**	Fernandez de Liger	Comeron	Noelia	Eskaera bertan behera utzi du.
***4076**	Artola	Apezteguia	Olatz	Ez du eskatzen den ingeles-maila frogatu.
***7222**	De la Linde Garcia	Garcia	Xabier	Sinadura digitala falta zaio.
***0377**	Olabe	Etura	Ander	Ez du eskatzen den ingeles-maila frogatu.
***6147**	Iturbe	Cardona	Arantzazu	Ez du eskatutako prestakuntza.

II. ERANSKINA

Epaimahaikideen izendapena:

Presidentea: Auria Etxeandia Saenz anderea. Euskadiko Gate Orkestrako komunikazio arduraduna.

Bokala: Jose María Hernandez Gomez jauna. Cristina Enea Fundazioko zuzendaria eta gerentea.

Bokala: Kristina Zorita Arratibel anderea. EITBko kazetaria.

Bokala: Jaione Askasibar Urdangarin anderea. Donostia Kulturako Marketin eta Komunikazio Kulturaleko Estrategiaren zuzendaria.

Bokala: Anton Bilbao Ruiz jauna. Artium - Arte Garaikidearen Euskal Zentro-Museoko komunikazio-arduraduna.

Idazkaria: Deborah Solla Sampedro anderea. Etxepare Euskal Institutuko Administrazio eta Zerbitzuetako teknikaria.

Ordezko epaimahaikideak:

Presidentea: Miren Elosegui Larrañeta anderea. Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren komunikazio arduraduna.

Bokala: Luis Molinuevo Ugartondo jauna. Artium - Arte Garaikidearen Euskal Zentro-Museoko finantza eta pertsonen arduraduna.

Bokala: Kizkitza Galartza Arregi anderea. Etxepare Euskal Institutuko teknikaria.

Bokala: Eneko Agirre Maiora jauna. Etxepare Euskal Institutuko teknikaria.

Bokala: Jurdana Uriarte Lejarraga anderea. Bermeoko udalaren Idazkari Teknikoa.

Idazkaria: Alexander Aginagalde Lopez jauna. Etxepare Euskal Institutuko Teknikaria.